ERRENTERIA
UDALA

# HERRI BEHATOKIA 2022

# OBSERVATORIO MUNICIPAL 2022

aztiker
SOZIOLOGIA IKERGUNEA

# SARRERA

Jarraian aurkezten den dokumentuak Errenteriako herritarrez osatutako Herri Behatokiak egindako prozesuaren emaitza nagusiak biltzen ditu.

2022ko maiatza eta ekainean zehar Errenteriako 22 herritar bildu dira, Udalak bidalitako gonbidapen baten bitartez, udalaren lan ildo nagusiak ezagutu, baloratu eta politika publikoak hobetzeko proposamenak egiteko.

Ekaina amaieran herritar taldeak euren proposamenak helarazi dizkie Alkateari, eta irailaren 8rako antolatutako saioan Udalak proposamen guztien itzulketa egin du.

Dokumentu hau Herri Behatokiaren inguruan gehiago jakin nahi duen edonorentzat da, eta horretarako, egitura honi jarraituz sortu da:

- Prozesuaren ezaugarri nagusiak
- Herritarrek egindako proposamenak
- Udalaren erantzuna eta konpromisoak

Herritarren lanerako gogoa, inplikazioa eta herria hobetzeko interesa izan dira lantaldearen motor nagusia, hori dela eta, parte hartu duten herritar guztiei eskerrak eman eta egindako ekarpena balioan jarri nahi da sarrera honetan, norbere ekarpenetik talde lana egiteko izan dute gaitasuna goraipatuz.

# INTRODUCCIÓN

El documento que se presenta a continuación recoge los principales resultados del proceso realizado por el Observatorio Municipal formado por la ciudadanía de Errenteria.

A lo largo de los meses de mayo y junio de 2022 se han reunido 22 vecinos y vecinas de Errenteria a través de una invitación enviada por el Ayuntamiento para conocer las principales líneas de trabajo municipales, valorarlas y realizar propuestas de mejora de las políticas públicas.

A finales de junio el grupo de ciudadanos y ciudadanas ha hecho llegar sus propuestas a la alcaldesa, y en la sesión organizada para el 8 de septiembre el Ayuntamiento ha realizado la devolución de todas las propuestas.

Este documento está dirigido a toda persona que quiera conocer más sobre el Observatorio Municipal, y para ello se ha seguido la siguiente estructura:

- Principales características del proceso
- Propuestas ciudadanas
- Respuesta y compromisos del Ayuntamiento

Las ganas de trabajo de la ciudadanía, su implicación y su interés por mejorar el municipio han sido el principal motor del grupo de trabajo, por lo que en esta introducción se quiere agradecer a todas las personas participantes y poner en valor su aportación, ensalzando su capacidad para hacer un trabajo en equipo desde la aportación propia.

## HERRI BEHATOKIA. ZER DA?




HERRI BEHATOKIA

Ausaz hautatutako herritarren (zein elkarte, eragile edo erakundeez) lan taldea

Politika publikoak ebaluatzea/baloratzea, betetzen dela zaintzea eta ekarpen / gomendio sorta bat egitea

## IZAERA ETA EZAUGARRIAK




Herri Behatokia definitzeko bi ezaugarri nagusiak hauexek:

- Ausaz hautatutako Herritarren lan talde bat da
- Udalaren politika publikoak ebaluatzea/baloratzea, betetzen dela zaintzea eta ekarpen/gomendio sorta bat egitea

Ausaz, zergatik? Metodologia honek aukera ematen duelako:

- Gure kulturan ohikoak izan diren komunikazio kanalen bitartez iristen ez garen herritarrengana iristeko aukera ematen duelako, besteak beste, gutxien parte hartzen duten herritar perfil horiengana hurbiltzeko.
- Taldean aniztasun handiagoa bilatzeko (ordezkagarritasunera guztiz iritsi gabe) baina neurri batean gizartearen aniztasuna islatzen saiatzeko, eta norabide horretan, iritzi aniztasuna ere jasotzeko. Ordezkagarritasunera iritsi gabe esaten dugu, ulertzen dugulako partaide bakoitzak ez duela bere izaera edo ezaugarriko pertsonen izenean hitz egiten.

# Galdera




Errenteriako Udalak, azken 3 urteetan hainbat esku hartze eta proiektu garatu ditu, aurreikusiak zeudenak batzuk, aurreikusi gabekoak besteak. Egin diren proiektuen baloraziotik abiatuta, **nola hobe daitezke hemendik aurrera egitea pentsatuak daudenak, herritar gehiagorengana iristeko? Zerbait falta da? Zeintzuk dira lehentasunak?**

# Ezaugarri soziodemografikoak



# Hitzorduak

## ZEHATZEAN. Hitzorduak

- Maiatzak 12. Aurkezpen saioa.
- Maiatzak 18. Informazio saioa
- Ekainak 1. Proposamenak sortu eta landu
- Ekainak 22. Proposamenak sakondu
- Itzulketa saioa. Irailak 8.

# PROPOSAMEN GUZTIAK

LAN MUNDUAN PAPERIK EZ DUEN JENDEA INTEGRATZEA ........ 6
OSASUN ETA ONGIZATERAKO AKTIBOEN MAPA EGITEA. ........ 8
DEIEN ZERBITZUA/PROIEKTUA ZABALTZEA ........ 10
JARDUERA FISIKO PERTSONALIZATUKO ZERBITZUA ........ 11
ADINEKOENTZAKO KALEKO JARDUERA KOLEKTIBOETARAKO GUNEAK SORTZEA ........ 13
HIRUGARREN ADINEKO PERTSONEI ORO HAR DIGITALIZATUTA EGON OHI DIREN EDUKIETARAKO SARBIDEA ERRAZTEA ETA SINPLIFIKATZEA. ........ 15
EZ NAHASTU ASKATASUNA ETA ESTILO LIBREA GENERO-INDARKERIAREKIN ........ 17
KOLEKTIBO BAKOITZEAN PERTSONA GARRANTZITSUAK BILATZEA, BEREN TALDEA DINAMIZA DEZATEN ........ 19
KEZKA: HERRIKO BIZITZA SOZIALA HUSTEA ........ 21
HERRIKO LOKAL HUTSAK, BATEZ ERE ZENTROKOAK EDO ALDE ZAHARREKOAK, UDALAK ATONDU ETA HERRIKO ARTISAU EDO ENPRENDEDORE TXIKIENTZAKO “ALOKATU”. ........ 23
LOKAL HUTSEN BEHATOKIA MARTXAN JARTZEA ........ 24
ESKUALDEKO ENPRESEN INFORMAZIOA ETA ZABALKUNDEA BULTZATZEA ........ 26
PROIEKTU BERRIAK GAUZATZEN LAGUNDUKO DUEN UDAL-LAN-POLTSA INDARTSU BAT SORTZEA ........ 28
SALAKETEN BULEGO IBILTARIA EZAGUTARAZTEA ETA IRISGARRIAGOA EGITEA ........ 30
POLIZIA HERRITARREKIN HARREMANETAN JARTZEKO MODUA HOBETZEA ........ 32
KIROL-GUNE BAT PRESTATZEA BAZTERKERIA-EGOERAN DAUDEN KOLEKTIBO GAZTEENTZAT. ........ 33

## LAN MUNDUAN PAPERIK EZ DUEN JENDEA INTEGRATZEA.

| |
|---|
| GAIA, AZPIGAIA / TEMA, SUBTEMA:<br>Desarrollo Económico |
| ERRONKA / RETO:<br>1.1.1. Proyectos para garantizar unas condiciones de vida dignas de las personas<br>3.4.1. Desarrollo del diagnóstico y plan a medio plazo para reforzar los planes de empleo |
| ☒ ORAIN ARTE EGINDAKOAREN GAINEAN EKARPENA / APORTACIÓN SOBRE LO REALIZADO HASTA LA FECHA<br>☐ AURRERA BEGIRA AURREIKUSITAKOARI HOBEKUNTZA PROPOSAMENA / PROPUESTA DE MEJORA A LO PREVISTO DE CARA AL FUTURO<br>☐ PROPOSAMEN BERRIA / NUEVA PROPUESTA |
| Zein da gure proposamena? (ahalik eta zehatzena) / ¿Cuál es nuestra propuesta? (Con la mayor concreción posible)<br>Integrar la gente que no tiene papeles en el mundo laboral |
| Herritarren balorazioa, kezka edo abiapuntuko ekarpena. Zerk kezkatzen gaitu gai honetan?<br>Valoración, preocupación o aportación de las participantes. ¿Cuál es nuestra preocupación sobre este tema?<br>La dificultad de las personas inmigrantes para conseguir contrato de trabajo para arreglar sus papeles. |
| Proposamenaren garapena: Zergatik proposatzen dugu? Nola garatu daiteke? Nola iritsi daiteke herritar gehiagorengana?<br>Desarrollo de la propuesta: ¿Cuál es el motivo de la propuesta? ¿Cómo se desarrolaría? ¿Cómo llegar a más ciudadanía?<br>En mi opinión el Ayuntamiento podría dar ayudas a las empresas para contratarlos. O bien se podría presionar o incentivar a las empresas y darles algunos beneficios para la contratación de personal y hacer precontratos de trabajo, que sean beneficiosos a la hora de participar en los concursos laborales públicos, que sea tomado en consideración |

| **ERRONKA:** PERTSONEN BIZI-BALDINTZA DUINAK BERMATZEA **(1.1.1.)** |
|---|
| Zein da gure proposamena?<br>LAN MUNDUAN PAPERIK EZ DUEN JENDEA INTEGRATZEA. |
| Udalaren ikuspegia proposamen honekiko (deskribapen labur bat esaldi bat-bitan)<br>Ikuspegi ideologikotik bat egiten dugun arren, proposamen hori betetzea zaila da tokiko esparrutik; izan ere, bai paperak nork izango dituen eta nork ez (administrazio-egoera erregularrean edo irregularrean nor dagoen), bai lan-baimenak nork eskuratuko dituen Barne eta Lan Ministerioek ezartzen dute.<br>Udaletik, oinarrizko eskubideak (osasuna, esaterako) bermatuta egon daitezen, pertsona guztiak erroldatzen ditugu, baita udal-bulegoetan ere.<br>Beraz, enpresei egoera irregularrean dauden pertsonak kontratatzeko edo Udalak kontratatzeko laguntzak ematea ez da bideragarria, legearen kontrakoa izango bailitzateke. |
| Proposamena bere horretan betetzeko konpromiso maila:<br>☐ HERRITARREK PROPOSATU DUTENA BERE HORRETAN EGINGO DA (%100)<br>☐ HERRITARREK PROPOSATU DUTENA ALDAKETA TXIKIREN BATEKIN EGINGO DA (%75A MANTENTZEN DA)<br>☒ HERRITARREK PROPOSATU DUTENAREN ANTZERAKO ZERBAIT EGINGO DA BAINA NAHIKOA ALDATUTA (%50, ERDIA, GUTXI GORABEHERA)<br>☐ HERRITARREK PROPOSATU DUTENA EZ DA EGINGO |
| Zer egitera eta zer ez egitera konprometitzen da? (erantzun ahalik eta zehatzena)<br>Zertan ari gara norabide horretan?<br><br>- 2022an, 200.000 € erabili ditugu zaintzaileek zaintzaile gisa egiaztatzen dituen ziurtagiria lor dezaten bermatzeko. Menpekotasunari buruzko Legea betetzeko, 2018ko urtarrilaren 1etik aurrera, menpekotasunaren sektorean lan egiten duen pertsona orok –zentro eta egoitzetan lan egiten dutenek nahiz etxez etxeko laguntzaileek– berariazko prestakuntza izan behar du. 2022an bukatuko da egiaztagiri hori badela edo eskuratzen ari dela justifikatzeko epea. Ikastaro horiek emateko partidak, ordutegiaren eta egunen arabera antolatuta, parte hartzea erraztu nahi du, eta gaur egun zaintzen dutenek baldintza duinetan egiten jarraitu ahal izatea bermatu (besteak beste, kontratua duten legezko baldintzak). Antolatutako lau ikastaroen bidez (hiru martxan eta bat irailean), eskualdeko 60 emakumek (gizonezko bat) lortuko dute egiaztagiri hori.<br><br>- ***V bikoitza* proiektu pilotua bikoitza:** kasu gehienetan, egoitza-baimena duten pertsona migratuek lan-baimena behar dute lan egin ahal izateko, eta lan-baimena eskuratzeko eskaintza bat behar dute. Hala ere, lan-baimenaren izapidetzea ez da automatikoa: lan-eskaintza duen pertsonak baimena lortu eta lanean hasi ahal izateak 3-4 hilabete iraun dezake, eta, ondorioz, eskaintza horiek “galdu” egiten dira. Udazken honetan, *V bikoitza* esperientzia pilotua jarriko dugu martxan; horren bidez, **izapidatze-aldi hori praktikaldiko kontratu baten bidez bete** nahi da. Esperientzia pilotu honetarako, hiru baldintza jarri zaizkie parte hartuko duten pertsonei: DBEaren jasotzaileak izatea, erregularizatzeko aukera izatea (hau da, estatuan 3 urte baino gehiago daramatela) eta lan-baimenik ez izatea. Oarsoaldean 100 pertsonak baino gehiagok betetzen dituzte baldintza horiek, eta udazkenean abian jarriko den proiektuan 35-40 lagunek hartuko dute parte. Praktika-kontratua (500 ordu arte) baliagarria izango da lan-kontratuak emango duen lan-baimenaren itxaronaldia modu erregularrean (eskubide eta betebeharrekin) betetzeko. SOS Arrazakeriaren eta Oarsoaldearen arteko proiektu pilotua da. **Oharra**: kontuan hartu behar da praktikak egiteko aukera oso mugatua dela (ikastaro zehatzetatik etorri behar duzu) eta oso interesgarria litzatekeela programan sartzeko DBEren hartzaile izan beharrik ez izatea.<br><br>Era berean, esan behar da, **oro har, lan egiteko aukera gutxi** duten pertsonekin lan egiten dela, lan-merkatura sartzeko arazoak dituztenekin (horien artean daude paperik gabeko pertsonak ere): trebetasunak garatzen dira (curriculumak egitea, elkarrizketak prestatzea…), prestakuntza eta motibazioa lantzen dira, paperak dituztenean prestatzeko. Berpiztu programaren testuinguruan, une honetan **proiektu zehatz bat** dago, eskualdeko pertsona migratzaileen enplegagarritasuna hobetzea helburu duena, SOS Arrazakeria buru duena eta 50 pertsonen prestakuntzan esku hartu nahi duena.<br>Azkenik**, Atzerritarren Legea aldatzen ari da une honetan**, eta ikusiko dugu zer aukera berri irekitzen dituen. |
| Epea: Noiz garatzea aurreikusten da? Aipatzen diren neurriak edo martxan jarri berri dira edo 2022ko udazkenean jarriko dira. |

# OSASUN ETA ONGIZATERAKO AKTIBOEN MAPA EGITEA

GAIA, AZPIGAIA / TEMA, SUBTEMA:

Vidas dignas

ERRONKA / RETO:

1.2. Crear las condiciones para una tercera edad activa y digna

☐ ORAIN ARTE EGINDAKOAREN GAINEAN EKARPENA / APORTACIÓN SOBRE LO REALIZADO HASTA LA FECHA

☐ AURRERA BEGIRA AURREIKUSITAKOARI HOBEKUNTZA PROPOSAMENA / PROPUESTA DE MEJORA A LO PREVISTO DE CARA AL FUTURO

☐ PROPOSAMEN BERRIA / NUEVA PROPUESTA

Zein da gure proposamena? (ahalik eta zehatzena) / ¿Cuál es nuestra propuesta? (Con la mayor concreción posible)

Elaborar un Mapa de Activos para la Salud y Bienestar.

Se entiende por "Activo": lugar físico, asociación, hogar del jubilado, personas de referencia… reconocido como generador de calidad para la vida por la comunidad.

Herritarren balorazioa, kezka edo abiapuntuko ekarpena. Zerk kezkatzen gaitu gai honetan?

Valoración, preocupación o aportación de las participantes. ¿Cuál es nuestra preocupación sobre este tema?

Conocer si existe información sobre recursos de cada barrio (activos) para mejorar la calidad de vida de las personas mayores (y en soledad) y cómo se identifican

Proposamenaren garapena: Zergatik proposatzen dugu? Nola garatu daiteke? Nola iritsi daiteke herritar gehiagorengana?

Desarrollo de la propuesta: ¿Cuál es el motivo de la propuesta? ¿Cómo se desarrollaría? ¿Cómo llegar a más ciudadanía?

Coger como punto de partida la guía de servicios realizada para la tercera edad, y ver qué puede valer para el mapa de activos.

Es un programa/metodología sistematizado, la categorización está construida.

El ayuntamiento podría crear este mapa de activos, y dar a conocer en una hoja web todos los activos identificados en cada barrio. Poner en manos de la mayoría de profesionales posible, por ejemplo, en conocimiento de profesionales de Osakidetza para prescripción social (porque muchas veces la dolencia no es física) y profesionales municipales (servicios sociales, p.e.) y ciudadanía. Abierto al acceso del público.

Una formación referencia buena puede ser la Escuela Andaluza de Salud Pública. O se podría contactar con Observatorio de la Salud de Asturias, que es pionero en promoción de la salud.

Se podría completar con la creación/impulso de creación de espacios abiertos, y el mapa podría incluir espacios de socialización en la calle, como lugares de práctica deportiva: petanca, toka…

**ERRONKA:** HIRUGARREN ADINA, AKTIBOA ETA DUINA IZAN DADIN BALDINTZAK SORTZEA **(1.2.)**

Zein da gure proposamena?

OSASUN ETA ONGIZATERAKO AKTIBOEN MAPA EGITEA. "Aktibo" esaten zaio: leku fisikoa, elkartea, erretiratuen etxea, erreferentziako pertsonak…, komunitateak bizi kalitatea sortzen duen gune bezala identifikatzen dueña.

Udalaren ikuspegia proposamen honekiko (deskribapen labur bat esaldi bat-bitan)

Proposamena oso interesgarri jotzen da Udaletik; bat egiten du erabat azken urteotan, testuinguru pandemikoak areagotuta, jorratzen ari den lan-ildoekin. Zaintza erdigunean jartzea du helburu proposamenak, hirugarren adineko pertsonek bizitza duinak izan ditzaten, komunitatea eta komunitatearen parte diren agente aktiboak inplikatuz, eta horretan sakontzeko ontzat jotzen da proposamena.
Espiritu horri erantzuten dio agintaldi honetan zehar egin den lanak:
https://static.errenteria.eus//web/eu/herria/harrera_gida/Gu%C3%ADa-para-personas-mayores.pdf

Gida honen helburua pentsiodunentzako eta erretiratuentzako Udalaren zerbitzuen eskaintza biltzea da. Horretarako, kolektibo horrentzako jarduera fisiko, kultural eta hezitzailearen proposamenak laburbilduko dira, bai eta gizarte zerbitzuak eta jaso ditzakeen laguntzak ere.

Bestalde, udalean eta, zehazki, gizarte zerbitzuetan egiten den lanean, modu inplizituan kudeatzen den mapa ere bada, besteak beste, bakardadearen kontrako estrategian baliatzen dena, baina sozialki eta publikoki esplizitatzea eta orain arte egindako lana osatzea interesgarria da.

Orain arte egindako lanketari segida emateko proposamen egokitzat jotzen dugu, beraz.

Proposamena bere horretan betetzeko konpromiso maila:

☒ HERRITARREK PROPOSATU DUTENA BERE HORRETAN EGINGO DA (%100)

☐ HERRITARREK PROPOSATU DUTENA ALDAKETA TXIKIREN BATEKIN EGINGO DA (%75A MANTENTZEN DA)

☐ HERRITARREK PROPOSATU DUTENAREN ANTZERAKO ZERBAIT EGINGO DA BAINA NAHIKOA ALDATUTA (%50, ERDIA, GUTXI GORABEHERA)

☐ HERRITARREK PROPOSATU DUTENA EZ DA EGINGO

Zer egitera eta zer ez egitera konprometitzen da? (erantzun ahalik eta zehatzena)

- Egun osatuta dugun zerbitzu eta baliabideen gida ikuspegi komunitario batekin osatu, hirian eta auzoetan ditugun aktiboak identifikatuz eta jasoz
  - Hiri antolamendurako plan orokorrean jasoko diren auzoetako gune esanguratsuak txertatuz.
  - Auzoetako eragileak eta auzoetan dauden agente garrantzitsuak inkorporatuz.
  - Aliatuak izan daitezkeen komertzio eta ostalaritza guneak txertatuz eta joka dezaketen paperaren inguruan sentsibilizatuz.
  - Udal programazioa txertatuz (zerbitzuez gain).
- Gida hori euskarri fisikoan herritarren eskura jarri, ekipamendu publikoen eta eragile komunitarioaren bidez.
- Udalaren web orrian eskegi euskarri digitalean, herritar orok eskuragarri izan dezan.
- Osasunarekin eta ongizatearekin lotuta dauden elkarteekin eta bestelako erakundeekin ere partekatu (Osakidetza, kasu).
- Interesgarria ikusten da, proposatzen den modura, horrelako lanketak eginda dituzten udalen erreferentziak kontuan hartzea.

Epea: Noiz garatzea aurreikusten da? 2024tik aurrera.

# DEIEN ZERBITZUA/PROIEKTUA ZABALTZEA. Betiko izan beharko luke.

<table>
<tr><td>GAIA, AZPIGAIA / TEMA, SUBTEMA:<br>1.2. Hirugarren adina.</td></tr>
<tr><td>ERRONKA / RETO:<br>1.2.1. Estrategias contra la soledad</td></tr>
<tr><td>☐ ORAIN ARTE EGINDAKOAREN GAINEAN EKARPENA / APORTACIÓN SOBRE LO REALIZADO HASTA LA FECHA<br>☐ AURRERA BEGIRA AURREIKUSITAKOARI HOBEKUNTZA PROPOSAMENA / PROPUESTA DE MEJORA A LO PREVISTO DE CARA AL FUTURO<br>☐ PROPOSAMEN BERRIA / NUEVA PROPUESTA</td></tr>
<tr><td>Zein da gure proposamena? (ahalik eta zehatzena) / ¿Cuál es nuestra propuesta? (Con la mayor concreción posible)<br>Extender el servicio/proyecto de llamadas. Debería ser algo para siempre.</td></tr>
<tr><td>Herritarren balorazioa, kezka edo abiapuntuko ekarpena. Zerk kezkatzen gaitu gai honetan?<br>Valoración, preocupación o aportación de las participantes. ¿Cuál es nuestra preocupación sobre este tema?<br>Durante el confinamiento, voluntarios llamaban a personas mayores para conocer sus realidades.<br>La preocupación es el envejecimiento de la población, cada vez se necesitan más proyectos en este sentido.</td></tr>
<tr><td>Proposamenaren garapena: Zergatik proposatzen dugu? Nola garatu daiteke? Nola iritsi daiteke herritar gehiagorengana?<br>Desarrollo de la propuesta: ¿Cuál es el motivo de la propuesta? ¿Cómo se desarrolaría? ¿Cómo llegar a más ciudadanía?<br>Desarrollo, “estrategia hariak”: prevención de la soledad no deseada (corresponde a Diputación), conocer bien el proyecto y trabajar conjuntamente el Ayuntamiento y la Diputación.<br>Habría que intentar llegar a más ciudadanía, 2 personas para el %25 de la población igual no es suficiente, necesita más educadores.<br>Se necesita más persona. Puede haber diferentes posibilidades complementarias:<br>- Crear puestos de trabajo, con personas en riesgo de exclusión<br>- Voluntariado.<br>- Completar con personas/entidades que reciben subvenciones municipales, a modo de devolución.<br>Se podrían realizar entre todas/os llamadas, visitas, o sacar de paseo a personas mayores (p.e. los voluntarios paseos, las personas/entidades subvencionadas llamadas…)<br>Organizar reuniones en AAVV para hacer primeros contactos<br>Contactar con personas mayores activas, personas que puedan ejercer de “antena”.</td></tr>
</table>

**ERRONKA:** HIRUGARREN ADINA, AKTIBOA ETA DUINA IZAN DADIN BALDINTZAK SORTZEA **(1.2.1.)**

Zein da gure proposamena?

DEIEN ZERBITZUA/PROIEKTUA ZABALTZEA. Betiko izan beharko luke.

Udalaren ikuspegia proposamen honekiko (deskribapen labur bat esaldi bat-bitan)

Adinekoek gero eta pisu nabarmenagoa dute gure biztanleria-egituran eta bizitza luzatzearen ondorioz, zaintza premiak areagotzen ari dira. Gainera, gero eta gehiago dira bakarrik bizi diren adinekoak eta askok, euren etxeetan bizitzen jarraitu nahi dute, baina senti dezaketen bakardadeari aurre eginez. Pandemia aurretik zegoen behar hori, areagotu eta nabarmenago bihurtu zen pandemiaren garairik zailenean. Eta bat-bateko eta urgentziazko egoerari aurre egiteko aktibatu zen zaintza-sare publiko-komunitarioaren jarduna oso garrantzitsua izan zen.

Zaintza sare-publiko komunitarioaren jarduna aktibatzearekin batera, bakardadearen inguruko diagnostiko bat ere egin da, herrian adinekoek bizi duten egoeraren argazki zehatza ematen diguna.

Konfinamendua amaituta eta neurriak eta premiak malgututa, pandemia aurreko asmoekin jarraitu genuen, besteak beste, bakardadeari aurre egiteko estrategia profesionalizatzea, betiere, zaintza sare publiko-komunitarioak egindako aurre-lana baliatuta eta estrategiari aurre egiteko garaian herrian eta auzoetan ditugun eragile garrantzitsuen lankidetzarekin (bakardadearen inguruko diagnostikoak identifikatu eta balioan jartzen dituenak).

Testuinguru horretan, 2022an esperientzia pilotu bat jarri dugu martxan, zaintza-sare publiko-komunitarioaren bidez desio ez duten bakardadea sentitzen dutela identifikatutako 100 adinekorekin. Pertsona horiekin egiten ari den lanketa zera da: deiak eta borondatea adierazten dutenekin, euren ongizatea hobetzeko ibilbide pertsonalizatuak, euren nahi eta beharretatik abiatuta. Asmoa ez da horietara mugatzen, baina horiek dira premiaren ikuspegitik identifikatu diren pertsonak.

Esperientzia pilotua den neurrian, orain irailean egingo dugu egin den lanaren balorazioa, baina asmoa litzateke, programa egonkortzea eta zabaltzea.

Beste alde batetik, Errenteriak Foru Aldundiak bultzatutako Hariak estrategiaren diseinuan parte hartu duela eta udal mailan garatzen ari den estrategia Hariak-en ildo beretik doala azpimarratu behar da, nahiz eta izen hori ez izan.

Proposamena bere horretan betetzeko konpromiso maila:

☐ HERRITARREK PROPOSATU DUTENA BERE HORRETAN EGINGO DA (%100)

☒ HERRITARREK PROPOSATU DUTENA ALDAKETA TXIKIREN BATEKIN EGINGO DA (%75A MANTENTZEN DA)

☐ HERRITARREK PROPOSATU DUTENAREN ANTZERAKO ZERBAIT EGINGO DA BAINA NAHIKOA ALDATUTA (%50, ERDIA, GUTXI GORABEHERA)

☐ HERRITARREK PROPOSATU DUTENA EZ DA EGINGO

Zer egitera eta zer ez egitera konprometitzen da? (erantzun ahalik eta zehatzena)

- Bakardadearen diagonostikotik eta egun egiten ari den lanketa pilotutik (adinekoei deiak eta lanketa bat egin nahi dutenekin ibilbide pertsonalizatuak) ateratako ondorioekin bakardadearen aurkako estrategia oso bat diseinatuko da.
- Aztertuko da plan horretan zein leku izan behar duten telefono bidezko deiek eta nortzuk egin beharko lituzketen.

Epea: Noiz garatzea aurreikusten da? 2023tik aurrera.

# JARDUERA FISIKO PERTSONALIZATUKO ZERBITZUA

| |
|---|
| GAIA, AZPIGAIA / TEMA, SUBTEMA:<br>Vidas dignas |
| ERRONKA / RETO:<br>1.2.3. |
| ☐ ORAIN ARTE EGINDAKOAREN GAINEAN EKARPENA / APORTACIÓN SOBRE LO REALIZADO HASTA LA FECHA<br>☐ AURRERA BEGIRA AURREIKUSITAKOARI HOBEKUNTZA PROPOSAMENA / PROPUESTA DE MEJORA A LO PREVISTO DE CARA AL FUTURO<br>☒ PROPOSAMEN BERRIA / NUEVA PROPUESTA |
| Herritarren balorazioa, kezka edo abiapuntuko ekarpena. Zerk kezkatzen gaitu gai honetan?<br>Valoración, preocupación o aportación de las participantes. ¿Cuál es nuestra preocupación sobre este tema?<br>Orain arte ez da garatu. |
| Zein da gure proposamena? (ahalik eta zehatzena) / ¿Cuál es nuestra propuesta? (Con la mayor concreción posible)<br>Servicio de actividad física personalizado |
| Proposamenaren garapena: Zergatik proposatzen dugu? Nola garatu daiteke? Nola iritsi daiteke herritar gehiagorengana?<br>Desarrollo de la propuesta: ¿Cuál es el motivo de la propuesta? ¿Cómo se desarrollaría? ¿Cómo llegar a más ciudadanía?<br>Osakidetza y Técnicos de educación física.<br>Mejorar la calidad de las personas. Al parecer Osakidetza tiene intención de implantar un plan. |

| **ERRONKA:** HIRUGARREN ADINA, AKTIBOA ETA DUINA IZAN DADIN BALDINTZAK SORTZEA **(1.2.3.1)** |
|---|
| Zein da gure proposamena?<br>JARDUERA FISIKO PERTSONALIZATUKO ZERBITZUA. |
| Udalaren ikuspegia proposamen honekiko (deskribapen labur bat esaldi bat-bitan)<br>Aginte-planean jasota dago jarduera fisikorako orientazio-zerbitzua abian jartzeko proiektu baten definizioa, hirugarren adineko pertsonen artean bizimodu osasungarria eta jarduera fisikoa sustatzeko.<br>Gaur egun, proiektuaren zirriborro bat landuta dago. |
| Proposamena bere horretan betetzeko konpromiso maila:<br>☒ HERRITARREK PROPOSATU DUTENA BERE HORRETAN EGINGO DA (%100)<br>☐ HERRITARREK PROPOSATU DUTENA ALDAKETA TXIKIREN BATEKIN EGINGO DA (%75A MANTENTZEN DA)<br>☐ HERRITARREK PROPOSATU DUTENAREN ANTZERAKO ZERBAIT EGINGO DA BAINA NAHIKOA ALDATUTA (%50, ERDIA, GUTXI GORABEHERA)<br>☐ HERRITARREK PROPOSATU DUTENA EZ DA EGINGO |
| Zer egitera eta zer ez egitera konprometitzen da? (erantzun ahalik eta zehatzena)<br>• Jarduera Fisikorako Orientazio Zerbitzua abian jartzea, hirugarren adineko pertsonen artean bizimodu osasungarria eta jarduera fisikoa sustatzeko. |
| Epea: Noiz garatzea aurreikusten da? 2023an. |

## ADINEKOENTZAKO KALEKO JARDUERA KOLEKTIBOETARAKO GUNEAK SORTZEA

| |
|---|
| GAIA, AZPIGAIA / TEMA, SUBTEMA:<br>Actividad física y tercera edad |
| ERRONKA / RETO:<br>1.2.3. Definición del proyecto de puesta en marcha del Servicio de Orientación para la Actividad Física para la promoción de la vida saludable y la actividad física entre las personas mayores |
| ☐ ORAIN ARTE EGINDAKOAREN GAINEAN EKARPENA / APORTACIÓN SOBRE LO REALIZADO HASTA LA FECHA<br>☐ AURRERA BEGIRA AURREIKUSITAKOARI HOBEKUNTZA PROPOSAMENA / PROPUESTA DE MEJORA A LO PREVISTO DE CARA AL FUTURO<br>☐ PROPOSAMEN BERRIA / NUEVA PROPUESTA |
| Zein da gure proposamena? (ahalik eta zehatzena) / ¿Cuál es nuestra propuesta? (Con la mayor concreción posible)<br>Crear espacios para actividades colectivas en la calle para la 3ª edad. Actividades físicas como petanca, toka, rana... que sea en la calle y que sirva como punto de encuentro. |
| Herritarren balorazioa, kezka edo abiapuntuko ekarpena. Zerk kezkatzen gaitu gai honetan?<br>Valoración, preocupación o aportación de las participantes. ¿Cuál es nuestra preocupación sobre este tema? |
| Proposamenaren garapena: Zergatik proposatzen dugu? Nola garatu daiteke? Nola iritsi daiteke herritar gehiagorengana?<br>Desarrollo de la propuesta: ¿Cuál es el motivo de la propuesta? ¿Cómo se desarrollaría? ¿Cómo llegar a más ciudadanía?<br>Impulsando estas desde los clubes de jubilados mediante torneos, por ejemplo. Que sirvan como puntos de encuentro, donde sociabilizar.<br>Se pueden preparar juegos de bolos en la plaza y hacer competencias entre clubs de jubilados.<br>Incrementar espacios para que los jubilados y pensionistas puedan compartir y competir, ya que en errenteria hay muy pocos clubs.<br>Habría que mejorar la difusión de las actividades que se organizan (tanto de los clubs como del Ayuntamiento). Se propone realizar una revista mensual para informar |

| **ERRONKA:** HIRUGARREN ADINA, AKTIBOA ETA DUINA IZAN DADIN BALDINTZAK SORTZEA **(1.2.3.)** |
|---|
| Zein da gure proposamena?<br>ADINEKOENTZAKO KALEKO JARDUERA KOLEKTIBOETARAKO GUNEAK SORTZEA. Jarduera fisikoak, hala nola petanka, toka, igela, kalean izatea eta elkargune izatea. |
| Udalaren ikuspegia proposamen honekiko (deskribapen labur bat esaldi bat-bitan)<br>Asko dira hirugarren adineko pertsonei zuzendutako barruko kirol-jarduerak (lokal desberdinetan egiten direnak). Horretan, kiroldegiez gain, auzoetako jubilatuen elkarteek eta auzoetako emakumeen elkarteak rol garrantzitsua jokatzen dute.<br>Kaleko jarduera sustatzeko, berriz, hainbat tokitan jarrita daude adineko pertsonek kirola egin dezaten makinak. Hauetan, adibidez: Iztieta Pasealkua; Gabierrota plaza; Kaputxinoetako Zamarreño parkea eta Beraungo Sarriegi plaza.<br>Badira baita, aire librean egiten direnak:<br>- Ibilaldi osasuntsuak (mendi ibilaldietan erabiltzen diren modukoak erabiliz), kirol departamentuaren bidez antolatuak<br>- Mugituz programa: paziente “ahulak” deiturikoei zuzendutako ariketa fisikorako programa. Anbulategietatik egiten diren deribazioak eta kirol departamentuak antolatzen ditu.<br>- Mugi Zaitez Bihotza: osasun-arazoak direla eta, euren mediku-tratamendua ariketa fisikoa eginez osatu behar duten pazienteei bideratua. Anbulategietatik egiten diren deribazioak eta kirol departamentuak antolatzen ditu.<br>Proposatzen dena, hirugarren adina, kalea eta talde-jarduera ez-antolatua uztartzea dela ulertuta, interesgarri jotzen da eta Udalak konpromisoa hartzen du egun hirugarren adinekoentzat ditugun zerbitzu eta programak kontuan hartuta, proposatzen diren moduko jarduerek zein toki izan dezaketen aztertzekoa. |
| Proposamena bere horretan betetzeko konpromiso maila:<br>☐ HERRITARREK PROPOSATU DUTENA BERE HORRETAN EGINGO DA (%100)<br>☒ HERRITARREK PROPOSATU DUTENA ALDAKETA TXIKIREN BATEKIN EGINGO DA (%75A MANTENTZEN DA)<br>☐ HERRITARREK PROPOSATU DUTENAREN ANTZERAKO ZERBAIT EGINGO DA BAINA NAHIKOA ALDATUTA (%50, ERDIA, GUTXI GORABEHERA)<br>☐ HERRITARREK PROPOSATU DUTENA EZ DA EGINGO |
| Zer egitera eta zer ez egitera konprometitzen da? (erantzun ahalik eta zehatzena)<br>Proposatzen dena, hirugarren adina, kalea eta talde-jarduera uztartzea dela ulertuta, interesgarri jotzen da eta Udalak konpromisoa hartzen du egun hirugarren adinekoentzat ditugun zerbitzu eta programak kontuan hartuta, proposatzen diren moduko jarduerek zein toki izan dezaketen aztertzekoa.<br>Horrekin batera, interesgarria eta osagarria izan daiteke:<br>• Jubilatu elkarteen, auzoetako emakume taldeen eta kiroldegien hirugarrena adinekoei zuzendutako programazioa errebisatzera.<br>• Programazio guztiaren sustapen eta zabalpena egitea.<br>• Kalean jarduera burutzeko dauden makinen guneak indartzea. |
| Epea: Noiz garatzea aurreikusten da? 2024tik aurrera. |

## HIRUGARREN ADINEKO PERTSONEI ORO HAR DIGITALIZATUTA EGON OHI DIREN EDUKIETARAKO SARBIDEA ERRAZTEA ETA SINPLIFIKATZEA.

| |
|---|
| GAIA, AZPIGAIA / TEMA, SUBTEMA:<br>Hirugarren adina |
| ERRONKA / RETO:<br>1.2.4. Puesta en marcha del programa de acercamiento de personas de la tercera edad a las nuevas tecnologías |
| ☐ ORAIN ARTE EGINDAKOAREN GAINEAN EKARPENA / APORTACIÓN SOBRE LO REALIZADO HASTA LA FECHA<br>☐ AURRERA BEGIRA AURREIKUSITAKOARI HOBEKUNTZA PROPOSAMENA / PROPUESTA DE MEJORA A LO PREVISTO DE CARA AL FUTURO<br>☐ PROPOSAMEN BERRIA / NUEVA PROPUESTA |
| Zein da gure proposamena? (ahalik eta zehatzena) / ¿Cuál es nuestra propuesta? (Con la mayor concreción posible)<br>Facilitar y simplificar el acceso a contenidos que suelen estar generalmente digitalizados (lo que significa acceso a internet) |
| Herritarren balorazioa, kezka edo abiapuntuko ekarpena. Zerk kezkatzen gaitu gai honetan?<br>Valoración, preocupación o aportación de las participantes. ¿Cuál es nuestra preocupación sobre este tema?<br>Las personas solas (mayores) puedan tener un servicio de ayuda para diversos tramites.<br>Se dice brecha digital, puede ser una brecha de conocimiento, puede ser una brecha económica y social…<br>Puede haber personas que no tengan línea en casa. Pero el resultado es que la información no llega a las personas. Y el riesgo es que la brecha siga haciéndose mayor. |
| Proposamenaren garapena: Zergatik proposatzen dugu? Nola garatu daiteke? Nola iritsi daiteke herritar gehiagorengana?<br>Desarrollo de la propuesta: ¿Cuál es el motivo de la propuesta? ¿Cómo se desarrolaría? ¿Cómo llegar a más ciudadanía?<br>Habilitar un teléfono único y distribuir la información de su existencia (pegatina, imán), servicio gratuito. Si puedes llamar a un número y decir “tengo este problema, dónde puedo encontrar información?”<br>O bien puede ser una guía física, para poder saber a dónde llamar, un folleto.<br>Habría que tener en cuenta los diferentes idiomas más utilizadas en el municipio. |

| **ERRONKA:** HIRUGARREN ADINA, AKTIBOA ETA DUINA IZAN DADIN BALDINTZAK SORTZEA **(1.2.4.)** |
|---|
| Zein da gure proposamena?<br>HIRUGARREN ADINEKO PERTSONEI ORO HAR DIGITALIZATUTA EGON OHI DIREN EDUKIETARAKO SARBIDEA ERRAZTEA ETA SINPLIFIKATZEA. |
| Udalaren ikuspegia proposamen honekiko (deskribapen labur bat esaldi bat-bitan)<br>Informaziorako sarbideak arrakala digitala gutxitzearekin du zerikusia, prestakuntzaren eta ahalduntze digitalaren ikuspegitik, eta Internetera sartzea bizitzarako oinarrizko zerbait dela ulertzearekin ere badu zerikusia. Bi alderdi horiek hainbat programa eta ekimenen bidez lantzen dira (erretiratuen zentroetako prestakuntza, KZgunearen bidezko prestakuntza, Internetera doan sartzeko guneak, etxean Internet izatearen gastuak estaltzeko diru-laguntzak).<br><br>Baina, gure ustez, horrek ez du eragozten telematikoak ez diren bitartekoen bidez informazioa eskuratzen jarraitzea. Horretarako, oinarrizko bi tresna ditugu: 010 telefono-zerbitzua, edozein kontsultatarako dei daitekeena; eta ZU zerbitzu presentziala, ordutegi zabaleko estaldura duena (goizeko 7: 30etatik arratsaldeko 19: 00etara, astean bi egunetan), gaur egun udaletxean eskaintzen dena.<br><br>Zerbitzu horiek hobeto ezagutaraztea ildo interesgarria izan daiteke, baita ZU! Zerbitzua goi-auzoetara (Beraun, Alaberga, Galtzarabora eta Kaputxinoak) Aldakoenearen bidez zabaltzea ere. |
| Proposamena bere horretan betetzeko konpromiso maila:<br>☒ HERRITARREK PROPOSATU DUTENA BERE HORRETAN EGINGO DA (%100)<br>☐ HERRITARREK PROPOSATU DUTENA ALDAKETA TXIKIREN BATEKIN EGINGO DA (%75A MANTENTZEN DA)<br>☐ HERRITARREK PROPOSATU DUTENAREN ANTZERAKO ZERBAIT EGINGO DA BAINA NAHIKOA ALDATUTA (%50, ERDIA, GUTXI GORABEHERA)<br>☐ HERRITARREK PROPOSATU DUTENA EZ DA EGINGO |
| Zer egitera eta zer ez egitera konprometitzen da? (erantzun ahalik eta zehatzena)<br>- Dauden zerbitzuak hobeto ezagutaraztea: 010 telefonoa eta ZU!<br>- ZU! Zerbitzua goi-auzoetara zabaltzea (Beraun, Alaberga, Galtzarabora eta Kaputxinos), Aldakoeneako ekipamendua irekiz.<br>- Adinekoen arteko arrakala digitala murrizteko abian jartzen diren ekimenak sustatzen eta ezagutarazten jarraitzea. |
| Epea: Noiz garatzea aurreikusten da? 2024tik aurrera. |

## EZ NAHASTU ASKATASUNA ETA ESTILO LIBREA GENERO-INDARKERIAREKIN

| |
|---|
| GAIA, AZPIGAIA / TEMA, SUBTEMA:<br>1.3. Empoderamiento de las mujeres y lucha por estilos de vida libres de violencia |
| ERRONKA / RETO:<br>Diseñar y desarrollar una estrategia para hacer frente a la violencia sexista (III. Dentro de la definición del plan) |
| ☒ ORAIN ARTE EGINDAKOAREN GAINEAN EKARPENA / APORTACIÓN SOBRE LO REALIZADO HASTA LA FECHA<br>☐ AURRERA BEGIRA AURREIKUSITAKOARI HOBEKUNTZA PROPOSAMENA / PROPUESTA DE MEJORA A LO PREVISTO DE CARA AL FUTURO<br>☐ PROPOSAMEN BERRIA / NUEVA PROPUESTA |
| Herritarren balorazioa, kezka edo abiapuntuko ekarpena. Zerk kezkatzen gaitu gai honetan?<br>Valoración, preocupación o aportación de las participantes. ¿Cuál es nuestra preocupación sobre este tema?<br>No confundir entre la libertad y estilo libre a la violencia de género. A veces las personas piensan que las mujeres son menos que los hombres, y no tienen derecho a defenderse. |
| Zein da gure proposamena? (ahalik eta zehatzena) / ¿Cuál es nuestra propuesta? (Con la mayor concreción posible)<br>Hay que crear una asociación que da el derecho a la mujer (asociación violencia contra las mujeres) y consolidar el hogar de las mujeres como un instrumento eficaz de encuentro y empoderamiento. |
| Proposamenaren garapena: Zergatik proposatzen dugu? Nola garatu daiteke? Nola iritsi daiteke herritar gehiagorengana?<br>Desarrollo de la propuesta: ¿Cuál es el motivo de la propuesta? ¿Cómo se desarrolaría? ¿Cómo llegar a más ciudadanía? |

**ERRONKA:** EMAKUMEEN AHALDUNTZEA ETA INDARKERIARIK GABEKO BIZIMODUEN ALDE BORROKATZEA **(1.3.0.)**

Zein da gure proposamena?

EZ NAHASTU ASKATASUNA ETA ESTILO LIBREA GENERO-INDARKERIAREKIN. Batzuetan, pertsonek uste dute emakumeak gizonak baino gutxiago direla, eta ez dute defendatzeko eskubiderik.

Udalaren ikuspegia proposamen honekiko (deskribapen labur bat esaldi bat-bitan)

Proposamen hau egun garatzen ari da gure herrian. Emakumeen Etxeari dagokionean, horixe du xede ekipamenduak, emakumeen ahalduntzerako, saretzerako eta elkartrukerako topagune izatea.
Bestetik, indarkeriari aurre egingo dion elkarte bat sortu berri da herrian eta elkarlana abiatuko du Udalarekin.

Proposamena bere horretan betetzeko konpromiso maila:

☒ HERRITARREK PROPOSATU DUTENA BERE HORRETAN EGINGO DA (%100)
☐ HERRITARREK PROPOSATU DUTENA ALDAKETA TXIKIREN BATEKIN EGINGO DA (%75A MANTENTZEN DA)
☐ HERRITARREK PROPOSATU DUTENAREN ANTZERAKO ZERBAIT EGINGO DA BAINA NAHIKOA ALDATUTA (%50, ERDIA, GUTXI GORABEHERA)
☐ HERRITARREK PROPOSATU DUTENA EZ DA EGINGO

Zer egitera eta zer ez egitera konprometitzen da? (erantzun ahalik eta zehatzena)

- Emakumeen Etxea:
  - Ahalduntzerako tresnak eskaintzen ditu: zerbitzuen, eskola feministaren eta programazioaren bidez.
  - Eskola feministak eta programazioak emakumeek elkarren artean ezagutzeko eta saretzeko aukera eskaintzen dute.
  - Balorazio jarraituak egiten dira, uneoro etxearen jarduna hobetzeko eta horretan jarraituko da.

- Indarkeriaren aurkako lanketa:
  - Berdintasun sailak III. Berdintasun planaren baitan indarkeriaren aurkako plan propio bat diseinatu du. Bertan hiru ildo nagusi lantzen dira:
    - Sentsibilizazioa: gaiaren inguruko sentsibilizazio eta prebentzio kanpainak (Madalen jaietakoa kasu).
    - Harrera eta arreta: indarkeria pairatu duten emakumeei harrera eta arreta ematen zaie, gizarte zerbitzuekin, emakumeen etxeko zerbitzuekin, udaltzaingoarekin eta beste instituzioekin elkarlanean.
    - Erreparazioa: ildo hau garatzen hasiko gara datozen urteotan, orain arte oso gutxi landu izan baita honen inguruan.
  - Indarkeria pairatzen duten emakumeen arreta integral batetarako, azken hilabeteetan zehar lanketa bat egin da Emakumeen Etxean, arlo honetan bidelaguntza eskaintzeko prest agertu diren emakume boluntarioekin. Lanketa honen emaitza elkarte baten sorrera izan da, zeinak beharra duten emakumeen laguntza boluntarioa eskaintzeko sarea sortzea izango duen helburu. Elkarte honekin elkarlanean jardungo du Udalak.

Epea: Noiz garatzea aurreikusten da? Dagoeneko garatzen ari da.

## KOLEKTIBO BAKOITZEAN PERTSONA GARRANTZITSUAK BILATZEA, BEREN TALDEA DINAMIZA DEZATEN.

GAIA, AZPIGAIA / TEMA, SUBTEMA:

Vidas dignas. Convivencia y cooperación.

ERRONKA / RETO:

1.9.1. Desarrollo del Plan de Diversidad Cultural 2019-2023

☐ ORAIN ARTE EGINDAKOAREN GAINEAN EKARPENA / APORTACIÓN SOBRE LO REALIZADO HASTA LA FECHA
☐ AURRERA BEGIRA AURREIKUSITAKOARI HOBEKUNTZA PROPOSAMENA / PROPUESTA DE MEJORA A LO PREVISTO DE CARA AL FUTURO
☐ PROPOSAMEN BERRIA / NUEVA PROPUESTA

Zein da gure proposamena? (ahalik eta zehatzena) / ¿Cuál es nuestra propuesta? (Con la mayor concreción posible)

Buscar personas relevantes en cada colectivo para que dinamicen su grupo. Kolektibo bakoitzeko "buru" izan daitezkeen pertsonekin sareak egin, integratu, gure bizimoldean.

Herritarren balorazioa, kezka edo abiapuntuko ekarpena. Zerk kezkatzen gaitu gai honetan?

Valoración, preocupación o aportación de las participantes. ¿Cuál es nuestra preocupación sobre este tema?

Se crean burbujas de comunidades. Lo hemos visto en ocasiones anteriores con la migración del estado.

Proposamenaren garapena: Zergatik proposatzen dugu? Nola garatu daiteke? Nola iritsi daiteke herritar gehiagorengana?

Desarrollo de la propuesta: ¿Cuál es el motivo de la propuesta? ¿Cómo se desarrollaría? ¿Cómo llegar a más ciudadanía?

Ayuntamiento, Asociaciones de Vecinos, colectivo o colectivos a integrar.

Organizar conjuntamente: sukaldaritza, Euskara, lana, esku lanak, kirola…

Badakite gaur egun egun Udalak arlo honetan lan egiten duela, baina aukera bezala ikusten da:

Pertsona horiek auzo bakoitzeko elkarteekin harreman sakona sortu dezakete.

Auzo jaietan partaide izan daitezela auzo horretako kolektibo guztiak:

- Sukaldari herri bakoitzeko janaria
- Kirola, herri bakoitzeko kirola. ("pequeños eventos deportivos" aipatu da, jaietatik kanpo izan daitezkeela baita ere). Dirigido a colectivos más jóvenes.
- Kanta eta dantza erakusketa

Honek guztiak elkar ezagutzeko balio dezala espero dute, elkar ezagutza da lehen urratsa herri "soziable"agoa egiteko.

| **ERRONKA:** ELKARBIZITZA ETA LANKIDETZA SENDOTZEA **(1.9.1.)** |
|---|
| Zein da gure proposamena?<br>KOLEKTIBO BAKOITZEAN PERTSONA GARRANTZITSUAK BILATZEA, BEREN TALDEA DINAMIZA DEZATEN. Kolektibo bakoitzeko "buru" izan daitezkeen pertsonekin sareak egin, integratu, gure bizimoduetan. |
| Udalaren ikuspegia proposamen honekiko (deskribapen labur bat esaldi bat-bitan)<br>Proposamenak jasotzen duen filosofiarekin bat egiten du Udalak eta hori aintzat hartuta egiten du lan egunerokotasunean dituen kulturarteko politiketan.<br><br>Udalean bertan, gizarte zerbitzuetako kontseiluaren baitan dagoen kultur-arteko mahaian, antzerako logika bat dago eraikita: herrian presente dauden eta antolatuta dauden jatorri desberdinetako herrikideen erreferenteak daude eta beraiekin edo beraien parte-hartzearekin antolatzen dira hainbat eta hainbat ekimen (betiere, euren ahalmenen baitan).<br><br>Sakondu daitekeen dinamika den arren, ikuspegi horrekin lan egiten da jada. |
| Proposamena bere horretan betetzeko konpromiso maila:<br>☒ HERRITARREK PROPOSATU DUTENA BERE HORRETAN EGINGO DA (%100)<br>☐ HERRITARREK PROPOSATU DUTENA ALDAKETA TXIKIREN BATEKIN EGINGO DA (%75A MANTENTZEN DA)<br>☐ HERRITARREK PROPOSATU DUTENAREN ANTZERAKO ZERBAIT EGINGO DA BAINA NAHIKOA ALDATUTA (%50, ERDIA, GUTXI GORABEHERA)<br>☐ HERRITARREK PROPOSATU DUTENA EZ DA EGINGO |
| Zer egitera eta zer ez egitera konprometitzen da? (erantzun ahalik eta zehatzena)<br>• Aipaturiko logika horren arabera lan egiten da jada honako programa edo ekimenetan, nahiz eta gehiago zabaldu daitekeen (betiere, euren ahalmena mugatua dela kontuan hartuta):<br>    ○ Atlantikaldia jaialdian.<br>    ○ Ikastetxeekin lantzen diren kulturarteko programetan.<br>    ○ Emakumeen Etxeko programazio eta zerbitzuetan.<br>    ○ Madalen jaietan.<br>    ○ Kale hezitzaileen lanketan. |
| Epea: Noiz garatzea aurreikusten da? Garatzen da jada. |

# KEZKA: HERRIKO BIZITZA SOZIALA HUSTEA.

| |
|---|
| GAIA, AZPIGAIA / TEMA, SUBTEMA:<br>Desarrollo económico, comercio local |
| ERRONKA / RETO:<br>3.3. Proyectos de desarrollo del plan de innovación comercial local |
| ☐ ORAIN ARTE EGINDAKOAREN GAINEAN EKARPENA / APORTACIÓN SOBRE LO REALIZADO HASTA LA FECHA<br>☐ AURRERA BEGIRA AURREIKUSITAKOARI HOBEKUNTZA PROPOSAMENA / PROPUESTA DE MEJORA A LO PREVISTO DE CARA AL FUTURO<br>☐ PROPOSAMEN BERRIA / NUEVA PROPUESTA |
| Herritarren balorazioa, kezka edo abiapuntuko ekarpena. Zerk kezkatzen gaitu gai honetan?<br>Valoración, preocupación o aportación de las participantes. ¿Cuál es nuestra preocupación sobre este tema?<br>Vaciar el pueblo de la vida social |
| Zein da gure proposamena? (ahalik eta zehatzena) / ¿Cuál es nuestra propuesta? (Con la mayor concreción posible)<br>– Buscar emprendedores y ayudar con acciones (sean bonos, entradas de cine, cenas en restaurantes, etc.)<br>– Socializar el consumo de barrio<br>– Eliminar la burocratización de apertura de negocios.<br>– Fomentar cursos de formación con el objetivo final de preparar personas que puedan abrir un negocio<br>– Posibilidad de permisos temporales<br>– Asesoría continuada, acompañamiento integral desde el comienzo hasta el establecimiento del proyecto.<br>– Hacer un estudio para conocer el por qué están cerrando negocios, así como verificar las diversas ramas de negocios |
| Proposamenaren garapena: Zergatik proposatzen dugu? Nola garatu daiteke? Nola iritsi daiteke herritar gehiagorengana?<br>Desarrollo de la propuesta: ¿Cuál es el motivo de la propuesta? ¿Cómo se desarrollaría? ¿Cómo llegar a más ciudadanía?<br>Ayuntamiento tiene que ser parte física para apoyar todas esas acciones que ayuden a abrir nuevos negocios.<br>Diversificar el tipo de comercio, a la hora de dar permiso valorar que haya varios tipos de comercio, tomando en cuenta a las personas de la tercera. |

| **ERRONKA:** TOKIKO MERKATARITZA BIZIBERRITZEKO PLANA (PERCO) GARATZEA **(3.3.0.)** |
|---|
| Zein da gure proposamena?<br>KEZKA: HERRIKO BIZITZA SOZIALA HUSTEA. |
| Udalaren ikuspegia proposamen honekiko (deskribapen labur bat esaldi bat-bitan)<br>Aldaketa askori lotutako eremua da, eta pandemiak azkartu egin du. Horrek kezkatzen gaitu dituen dimentsio ugariengatik, eta horregatik, baliabide handiak inbertitzen ari dira, bai denborari dagokionez, bai diruari dagokionez. Alderdi horiek lantzeko, epe laburretik epe ertain eta luzera begiratu behar da; hortaz, garatu beharreko ekintzak askotarikoak eta konplexuak izan daitezke, eta etengabe berrikusi behar dira. Berrikuspen horretan gehiago sakondu ahal izango litzateke gaietan, eta ekintza espezifikoagoak txertatu.<br><br>Legegintzaldi honetan gai hauek lantzen ari dira:<br>• Bizi Errenteria marka sortzea eta kanpaina espezifikoak garatzea (tokiko ekoizleak, hiri-ekonomiaren sektoreak).<br>• Merkataritza dinamizatzeko ekintzak pandemian.<br>• Tokiko kontsumoa sustatzea kontsumo-bonuen bidez.<br>• Pandemian zehar zuzeneko diru-laguntzak negozioei eusteko.<br>• Lokalak hobetzeko, modernizatzeko, digitalizatzeko eta energia-eraginkortasunerako diru-laguntzak.<br>• Hiri-kalitatea hobetzea merkataritza-guneetan (Erdialdea, Beraun eta Iztieta).<br>• Hirigune historikoa dinamizatzea, artisau-auzo gisa (Artisau Auzoa): Torrekua eta tailer-dendak, besteak beste.<br>• Lokal hutsak mobilizatzeko jarduerak eta identifikazioa.<br>• Negozio bati ekin nahi dion pertsona orori aholkularitza, prestakuntza eta laguntza ematea, ideiatik hasi eta negozioa ireki ondoren arte. Baita zailtasunak dituzten negozioei edo Talka Bulegoa bulegoaren bitartez negozioa eraldatu nahi dutenei ere.<br>• Kooperatiba bat sortu nahi duten pertsonei prestakuntza, aholkularitza eta laguntza emateko urteko programa.<br>• Erretiroagatik itxiko diren negozioetarako belaunaldi-erreleboko programa espezifikoa.<br>• Merkatuaren irudi korporatiboa aldatzeko laguntza, tokiko merkataritzaren eta ostalaritzaren eragile garrantzitsua den aldetik.<br>• Gazteen kontsumo arduratsuko ohiturak ezagutzeko azterketa.<br><br>Gauzatzen ari den Plan Orokorraren berrikuspenean, udalerriko auzo bakoitzerako *auzo-bihotza* bat aurreikusten duen proposamen bat ere lantzen ari dira, auzo bakoitzean bizi direnen arteko topaketa eta harremanak ahalbidetuko dituen zentro bat. *Auzo-bihotza* horiei lotuta, beheko lokalen erabilera-aldaketak jasotzen dituen ordenantzaren aldaketa bat lantzen ari dira, lokal horiek mugatzeko eta auzo-bihotzak eta merkataritza-guneak babesteko.<br><br>Proposamen gisa planteatu den eta landu ez den gai bat negozio berri bat sortzeko edo irekitzeko izapide administratiboak murriztea edo arintzea da. Azter liteke, hobetzeko tarterik ba ote dagoen ikusteko. |
| Proposamena bere horretan betetzeko konpromiso maila:<br>☐ HERRITARREK PROPOSATU DUTENA BERE HORRETAN EGINGO DA (%100)<br>☒ HERRITARREK PROPOSATU DUTENA ALDAKETA TXIKIREN BATEKIN EGINGO DA (%75A MANTENTZEN DA)<br>☐ HERRITARREK PROPOSATU DUTENAREN ANTZERAKO ZERBAIT EGINGO DA BAINA NAHIKOA ALDATUTA (%50, ERDIA, GUTXI GORABEHERA)<br>☐ HERRITARREK PROPOSATU DUTENA EZ DA EGINGO |
| Zer egitera eta zer ez egitera konprometitzen da? (erantzun ahalik eta zehatzena)<br>Planifikatuta ditugun eta gauzatzen ari garen ekintza eta ekimen guztiak gauzatzea.<br><br>Garrantzitsua da jakitea merkataritza eta ostalaritzako aholku-batzorde bat dagoela, eta bertan parte hartzen dutela tokiko ekonomia-ehunean inplikatuta dauden udalerriko eragileek. Hilean behin biltzen da, gutxi gorabehera, eta hiri-ekonomiaren arloko politikak eta ekintzak proposatu, definitu eta berrikusten dira bertan.<br><br>Esan bezala, azter liteke gehiegizko burokrazia dagoen eta horrek negozio berriak irekitzea zailtzen edo gogogabetzen duen. |
| Epea: Noiz garatzea aurreikusten da? Gai gehienak dagoeneko lantzen ari dira. Burokratizazioaren gaiari 2024tik aurrera ekin dakioke. |

## HERRIKO LOKAL HUTSAK, BATEZ ERE ZENTROKOAK EDO ALDE ZAHARREKOAK, UDALAK ATONDU ETA HERRIKO ARTISAU EDO ENPRENDEDORE TXIKIENTZAKO "ALOKATU".

| |
|---|
| GAIA, AZPIGAIA / TEMA, SUBTEMA:<br>Desarrollo Económico |
| ERRONKA / RETO:<br>3.3.1. Compra y rehabilitación de locales vacíos para la revitalización comercial |
| ☐ ORAIN ARTE EGINDAKOAREN GAINEAN EKARPENA / APORTACIÓN SOBRE LO REALIZADO HASTA LA FECHA<br>☒ AURRERA BEGIRA AURREIKUSITAKOARI HOBEKUNTZA PROPOSAMENA / PROPUESTA DE MEJORA A LO PREVISTO DE CARA AL FUTURO<br>☐ PROPOSAMEN BERRIA / NUEVA PROPUESTA |
| Zein da gure proposamena? (ahalik eta zehatzena) / ¿Cuál es nuestra propuesta? (Con la mayor concreción posible)<br>Herriko lokal hutsak, batez ere zentrokoak edo alde zaharrekoak, udalak atondu eta herriko artisau talde edo enprendedore txikientzako "alokatu". |
| Herritarren balorazioa, kezka edo abiapuntuko ekarpena. Zerk kezkatzen gaitu gai honetan?<br>Valoración, preocupación o aportación de las participantes. ¿Cuál es nuestra preocupación sobre este tema?<br>No se ha desarrollado la propuesta de creación del observatorio para la reactivación de locales vacíos |
| Proposamenaren garapena: Zergatik proposatzen dugu? Nola garatu daiteke? Nola iritsi daiteke herritar gehiagorengana?<br>Desarrollo de la propuesta: ¿Cuál es el motivo de la propuesta? ¿Cómo se desarrollaría? ¿Cómo llegar a más ciudadanía?<br>Alokatu egin daitezke edo lehengo bi urteetan adibidez doako utzi daitezke. Denda honetan "artisauak" lanean ikus daitezke, galería moduan funtzionatu dezake eta produktuak erosteko ere. Tailerrak ere antolatu daitezke adin ezberdinetako pertsonak aktibatuz: gazteak, nagusiak... Denda hauen produktuak edo aktibitateak web plataforman erakutsiko lirateke (3.3.1. ekintzan agertzen da). Horretarako formazioa eman beharko da. |

| **ERRONKA :** TOKIKO MERKATARITZA BIZIBERRITZEKO PLANA (PERCO) GARATZEA **(3.3.1.)** |
|---|
| Zein da gure proposamena?<br>HERRIKO LOKAL HUTSAK, BATEZ ERE ZENTROKOAK EDO ALDE ZAHARREKOAK, UDALAK ATONDU ETA HERRIKO ARTISAU EDO ENPRENDEDORE TXIKIENTZAKO "ALOKATU". |
| Udalaren ikuspegia proposamen honekiko (deskribapen labur bat esaldi bat-bitan)<br>Alde zaharrean, Artisau Auzoa sustatzeko, lokal hutsen eremuan oso berritzailea izan den ekimena garatzen ari da: hutsak edo itxita zeuden lokalen jabeekin hitzarmena egin da, udalak lokal horiek berritu eta lokal-jabeek 20 urtez artisauentzako jasangarria diren alokairuak kobra ditzaten. Ildo honek zabalik jarraitzen du.<br><br>Ekimen hau herriko beste gune komertzialetara eramateko asmoarekin, lokal hutsen behatokia sortzea proposatzen genuen. Une honetan, behatokia sortzea baino, honakoa egitea proposatzen dugu:<br><br>• Ondorengotza bermatzeko eta lokal hutsetan ekintzaileak instalatzeko dirulaguntzak.<br>• Merkataritzarako Babes Ofizialeko Lokal publikoen poltsa sortu (etxebizitzekin egiten den antzera, lokaletan inbertsioak egiteko dirulaguntzak martxan jarriz).<br>• Ekintzailetza proiektuen hazitegia: laguntza teknikoa eta akonpainamendua, babes ofizialeko lokaletan dauden merkatari/ekintzaileei. |
| Proposamena bere horretan betetzeko konpromiso maila:<br>☒ HERRITARREK PROPOSATU DUTENA BERE HORRETAN EGINGO DA (%100)<br>☐ HERRITARREK PROPOSATU DUTENA ALDAKETA TXIKIREN BATEKIN EGINGO DA (%75A MANTENTZEN DA)<br>☐ HERRITARREK PROPOSATU DUTENAREN ANTZERAKO ZERBAIT EGINGO DA BAINA NAHIKOA ALDATUTA (%50, ERDIA, GUTXI GORABEHERA)<br>☐ HERRITARREK PROPOSATU DUTENA EZ DA EGINGO |
| Zer egitera eta zer ez egitera konprometitzen da? (erantzun ahalik eta zehatzena)<br><br>• Ondorengotza bermatzeko eta lokal hutsetan ekintzaileak instalatzeko dirulaguntzak.<br>• Merkataritzarako Babes Ofizialeko Lokal publikoen poltsa sortu (etxebizitzekin egiten den antzera, lokaletan inbertsioak egiteko dirulaguntzak martxan jarriz).<br>• Ekintzailetza proiektuen hazitegia: laguntza teknikoa eta akonpainamendua, babes ofizialeko lokaletan dauden merkatari/ekintzaileei. |
| Epea: Noiz garatzea aurreikusten da? 2023tik aurrera. |

## LOKAL HUTSEN BEHATOKIA MARTXAN JARTZEA

| |
|---|
| GAIA, AZPIGAIA / TEMA, SUBTEMA:<br>Desarrollo Económico |
| ERRONKA / RETO:<br>3.3.2. Creación de un observatorio de seguimiento y reactivación de locales vacíos |
| ☐ ORAIN ARTE EGINDAKOAREN GAINEAN EKARPENA / APORTACIÓN SOBRE LO REALIZADO HASTA LA FECHA<br>☒ AURRERA BEGIRA AURREIKUSITAKOARI HOBEKUNTZA PROPOSAMENA / PROPUESTA DE MEJORA A LO PREVISTO DE CARA AL FUTURO<br>☐ PROPOSAMEN BERRIA / NUEVA PROPUESTA |
| Zein da gure proposamena? (ahalik eta zehatzena) / ¿Cuál es nuestra propuesta? (Con la mayor concreción posible)<br>Poner en marcha el observatorio de locales vacíos. Aprovechando para actividad comunitaria en locales municipales y para uso privado (negocio) en locales de titularidad privada. |
| Herritarren balorazioa, kezka edo abiapuntuko ekarpena. Zerk kezkatzen gaitu gai honetan?<br>Valoración, preocupación o aportación de las participantes. ¿Cuál es nuestra preocupación sobre este tema?<br>No se ha desarrollado la propuesta de creación del observatorio para la reactivación de locales vacíos. Uno de los objetivos sería aprovechar los espacios y locales sin uso. |
| Proposamenaren garapena: Zergatik proposatzen dugu? Nola garatu daiteke? Nola iritsi daiteke herritar gehiagorengana?<br>Desarrollo de la propuesta: ¿Cuál es el motivo de la propuesta? ¿Cómo se desarrollaría? ¿Cómo llegar a más ciudadanía?<br>Apertura de oficina centralizando toda la información y ayudas a las necesidades de empresas. El Ayuntamiento tendría un papel mediador entre titular del local y emprendedor.<br>Incluir los locales de titularidad municipal. Accesible en la web municipal y punto de información online. Información sobre las características del local. |

| **ERRONKA :** TOKIKO MERKATARITZA BIZIBERRITZEKO PLANA (PERCO) GARATZEA **(3.3.2.)** |
|---|
| Zein da gure proposamena?<br>LOKAL HUTSEN BEHATOKIA MARTXAN JARTZEA. Udal-lokaletan komunitate-jarduerarako eta titulartasun pribatuko lokaletan erabilera pribaturako (negozioa) aprobetxatzea. |
| Udalaren ikuspegia proposamen honekiko (deskribapen labur bat esaldi bat-bitan)<br>**Behatokia sortzeko hasierako asmoari buelta bat eman zaio eta une honetan honakoa egitea proposatzen dugu itxita dauden lokal pribatuen eremuen:**<br>• Merkataritzarako Babes Ofizialeko Lokal publikoen poltsa sortu (etxebizitzekin egiten den antzera, lokaletan inbertsioak egiteko dirulaguntzak martxan jarriz). Honek berarekin ekarriko du lokal hutsen inbentario bat egitea eta lokal hutsen eskaintze/demanda eta erabilera zenbatekoa den ezagutzea.<br>Udalarenak diren lokalen kasuan, ez dago lokal hutsik. Alderantziz, eragileen demanda eta zerbitzuak emateko espazioen eskaera handia da. |
| Proposamena bere horretan betetzeko konpromiso maila:<br>☐ HERRITARREK PROPOSATU DUTENA BERE HORRETAN EGINGO DA (%100)<br>☒ HERRITARREK PROPOSATU DUTENA ALDAKETA TXIKIREN BATEKIN EGINGO DA (%75A MANTENTZEN DA)<br>☐ HERRITARREK PROPOSATU DUTENAREN ANTZERAKO ZERBAIT EGINGO DA BAINA NAHIKOA ALDATUTA (%50, ERDIA, GUTXI GORABEHERA)<br>☐ HERRITARREK PROPOSATU DUTENA EZ DA EGINGO |
| Zer egitera eta zer ez egitera konprometitzen da? (erantzun ahalik eta zehatzena)<br>Merkataritzarako Babes Ofizialeko Lokal publikoen poltsa sortu |
| Epea: Noiz garatzea aurreikusten da? 2023tik aurrera. |

## ESKUALDEKO ENPRESEN INFORMAZIOA ETA ZABALKUNDEA BULTZATZEA

| GAIA, AZPIGAIA / TEMA, SUBTEMA: |
|---|
| Desarrollo económico |
| ERRONKA / RETO:<br>3.3.3. Definir y desarrollar una estrategia para garantizar la innovación y la sucesión de los establecimientos comerciales y hosteleros |
| ☐ ORAIN ARTE EGINDAKOAREN GAINEAN EKARPENA / APORTACIÓN SOBRE LO REALIZADO HASTA LA FECHA<br>☐ AURRERA BEGIRA AURREIKUSITAKOARI HOBEKUNTZA PROPOSAMENA / PROPUESTA DE MEJORA A LO PREVISTO DE CARA AL FUTURO<br>☐ PROPOSAMEN BERRIA / NUEVA PROPUESTA |
| Zein da gure proposamena? (ahalik eta zehatzena) / ¿Cuál es nuestra propuesta? (Con la mayor concreción posible)<br>Impulsar la información y difusión de las empresas de la comarca.<br>Ayuda municipal a nivel de información y necesidades de las empresas y comercios.<br>Bi aukera zehatz baloratu dira:<br>- Web plataforma bat<br>- Guía municipal profesional |
| Herritarren balorazioa, kezka edo abiapuntuko ekarpena. Zerk kezkatzen gaitu gai honetan?<br>Valoración, preocupación o aportación de las participantes. ¿Cuál es nuestra preocupación sobre este tema?<br>La principal preocupación es la desaparición de empresas y comercios. Denden desagerpena herrian kezka handi bat da. Zentro komertzialetara joateko joera gero eta handiagoa da. Gaur egun zentro komertzial handiez gain internetek ere aukera ematen du behar duzuna aurkitzea mugitzen ibili behar izan Gabe, adibidez herrira etorri eta dendaz dena gauza zehatz bat bilatzen ibili behar izatea, eta agian ez duzu aurkitzen. |
| Proposamenaren garapena: Zergatik proposatzen dugu? Nola garatu daiteke? Nola iritsi daiteke herritar gehiagorengana?<br>Desarrollo de la propuesta: ¿Cuál es el motivo de la propuesta? ¿Cómo se desarrollaría? ¿Cómo llegar a más ciudadanía?<br>Web plataforman Oarsoaldeko denda guztien produktuak aurkituko genituzke, ataletan antolatuta: janaria, arropa, erramintak... Interesatzen zaigun produktua aurkitu eta non topa dezakegun ikusiko dugu, zein dendatara joan behar dugun bila. Erregistratzen bagera web horretan oferta ezberdinak jaso ditzakegu, edo alertak whatsapez: ofertak, tailerrak, etab.<br>"Wallapop" bezalakoa litzake, interneten ikusten dut eta joaten naiz jakinda badagoela, izan ere, batzuetan zentro komertzial handietara jotzen dugu denbora aurrezteagatik, eta horrela denbora aurreztuko genuke. |

| **ERRONKA :** TOKIKO MERKATARITZA BIZIBERRITZEKO PLANA (PERCO) GARATZEA **(3.3.3.)** |
|---|
| Zein da gure proposamena?<br>ESKUALDEKO ENPRESEN INFORMAZIOA ETA ZABALKUNDEA BULTZATZEA. Udal laguntza enpresen eta saltokien informazio eta beharrizanei dagokienez. Bi aukera zehatz baloratu dira:<br>• Web plataforma bat.<br>• Udal gida profesionala. |
| Udalaren ikuspegia proposamen honekiko (deskribapen labur bat esaldi bat-bitan)<br>Bi proposamenak interesgarriak dira, eta, beraz, egokiena bideragarritasuna eta merkataritza- eta ostalaritza-batzordean forma ematea nola komeni den aztertzea litzateke.<br><br>Udalerrian dagoen eskaintzaren web-plataformari dagokionez, tokiko erosketa-plataforma bat sortzea eztabaidatu da, eta baztertu egin da, on-line erosketa sustatuko lukeelako, erosketa-esperientzia kenduta. Horri dagokionez, tokiko merkataritzak balio erantsia eskaintzen du: kalitatezko zerbitzua, aholkularitza, hurbileko eta zuzeneko tratua, harreman soziala. Hala ere, erakusleiho digital gisa, gaur egun bi plataforma daude enpresei eta horiek udalerrian duten eskaintzari buruzko informazioa ematen dutenak:<br><br>- Merkataritzaren arloan, Errenkoaldek badu jada ihesbide digital bat, eta bertan aurkezten dute bere eskaintza.<br>- Ostalaritzaren esparruan, smartphone-etarako Jangou aplikazioa dago, Torrekua-n kokatutako enpresa teknologiko batek sortua, ostalariei duten eskaintza erakusteko eta establezimenduarekin harremanetan jartzeko aukera eskaintzen diena.<br><br>Lantzen ari garena, ordea, eta planteatzen denaren espirituarekin oso lotuta dagoena, udalerriko saltokien, zerbitzuen eta ostalaritzaren webgune orokor bat duen merkataritza-gune irekiaren ideia da.<br><br>Udal gida profesionalari dagokionez, dagoeneko badago eskualdeko web gida bat (enpresagida.eus), GIS sistemaren bidez udalerrian dauden enpresa eta negozio guztiak jasotzen dituena. Gainera, etengabe eguneratzen da (enpresa edo negozio berberek egin dezakete). Bestalde, tokiko ekoizleen mapa bat ere badago, pandemiaren ondoren Bizi Errenterian egin zena. |
| Proposamena bere horretan betetzeko konpromiso maila:<br>☐ HERRITARREK PROPOSATU DUTENA BERE HORRETAN EGINGO DA (%100)<br>☐ HERRITARREK PROPOSATU DUTENA ALDAKETA TXIKIREN BATEKIN EGINGO DA (%75A MANTENTZEN DA)<br>☒ HERRITARREK PROPOSATU DUTENAREN ANTZERAKO ZERBAIT EGINGO DA BAINA NAHIKOA ALDATUTA (%50, ERDIA, GUTXI GORABEHERA)<br>☐ HERRITARREK PROPOSATU DUTENA EZ DA EGINGO |
| Zer egitera eta zer ez egitera konprometitzen da? (erantzun ahalik eta zehatzena)<br>Web plataformaren proposamenari dagokionez, Merkataritza eta ostalaritzako aholku-batzordean aztertuko dugu egiten den proposamenari bideragarritasuna eta forma nola ematea komeni den, lehendik dagoena eta merkataritza-gune irekiaren kontzeptua garatzeko proiektua kontuan hartuta, eskaintza osoa jasoko duen webgune bati lotuta. Egingo dena bertan lantzen eta erabakitzen denaren araberakoa izango da.<br><br>Gida profesionalari dagokionez, aztertu beharko litzateke ea dagoenak proposatutako helburuak betetzen dituen edo ekintza osagarriren bat garatu behar den, hala nola hedapena.. |
| Epea: Noiz garatzea aurreikusten da? 2023tik aurrera. |

## PROIEKTU BERRIAK GAUZATZEN LAGUNDUKO DUEN UDAL-LAN-POLTSA INDARTSU BAT SORTZEA

GAIA, AZPIGAIA / TEMA, SUBTEMA:

Desarrollo económico

ERRONKA / RETO:

3.4.1. Desarrollo del diagnóstico y plan a medio plazo para reforzar los planes de empleo

☐ ORAIN ARTE EGINDAKOAREN GAINEAN EKARPENA / APORTACIÓN SOBRE LO REALIZADO HASTA LA FECHA
☐ AURRERA BEGIRA AURREIKUSITAKOARI HOBEKUNTZA PROPOSAMENA / PROPUESTA DE MEJORA A LO PREVISTO DE CARA AL FUTURO
☐ PROPOSAMEN BERRIA / NUEVA PROPUESTA

Zein da gure proposamena? (ahalik eta zehatzena) / ¿Cuál es nuestra propuesta? (Con la mayor concreción posible)

Generar una bolsa de empleo municipal, potente, que ayude a llevar a cabo nuevos proyectos. Ampliar los proyectos para impulsar la integración laboral de colectivos vulnerables:

- Jóvenes
- Inserción laboral de mayores de 55

Herritarren balorazioa, kezka edo abiapuntuko ekarpena. Zerk kezkatzen gaitu gai honetan?

Valoración, preocupación o aportación de las participantes. ¿Cuál es nuestra preocupación sobre este tema?

Falta de medios económicos y laborales de mucha parte de la juventud para poder desarrollar sus proyectos. La posibilidad de ampliar el campo más allá de los planes de empleo. La falta de oportunidades

Proposamenaren garapena: Zergatik proposatzen dugu? Nola garatu daiteke? Nola iritsi daiteke herritar gehiagorengana?

Desarrollo de la propuesta: ¿Cuál es el motivo de la propuesta? ¿Cómo se desarrollaría? ¿Cómo llegar a más ciudadanía?

- Potenciando políticas de empleo acordes a la oferta y demanda de empleo
- Condiciones a las empresas del municipio que den prioridad en sus contrataciones a vecinos del municipio y Oarsoaldea

Presionar o incentivar a las empresas y darles algunos beneficios para la contratación de personal y hacer precontratos de trabajo, que sean beneficiosos a la hora de participar en los concursos laborales públicos, que sea tomado en consideración

| **ERRONKA:** ENPLEGUA SORTZEA ETA ENPRESEN BERRIKUNTZA HOBETZEA **(3.4.1.)** |
|---|
| Zein da gure proposamena?<br>PROIEKTU BERRIAK GAUZATZEN LAGUNDUKO DUEN UDAL-LAN-POLTSA INDARTSU BAT SORTZEA.<br>Kolektibo zaurgarrien laneratzea bultzatzeko proiektuak zabaltzea:<br>• Gazteak.<br>• 55 urtetik gorakoak laneratzea. |
| Udalaren ikuspegia proposamen honekiko (deskribapen labur bat esaldi bat-bitan)<br>Administrazio publikoaren eremuan, **egiturazko lana dena**, enplegu egonkorraren bidez konpondu behar da, hau da, lehiaketa publikora aterako diren plazak sortuz. Enplegu publikoko poltsak lanpostu jakin batera aurkeztu diren pertsonek osatzen dituzte, probak gainditu dituzte eta poltsa horiek erabil daitezke plazen titularrek izan ditzaketen bajak betetzeko.<br><br>**Koiunturazko edo unean uneko lan eta zereginei** Enplegu Planen bidez erantzun dakieke. Plan horiek kolektibo jakin batzuen enplegagarritasuna hobetzeko erabiltzen ditugu, adibidez, aipatzen direnak: langabezian dauden eta beren prestakuntzarekin bat datorren jarduera bat egin dezaketen gazteak eta 55 urtetik gorako langabeak, enplegura itzultzea zaila izaten baita. Enplegu-planetan beste kolektibo batzuk ere hartzen dira kontuan, hala nola familia-erantzukizunak edo genero-indarkeriaren biktimak diren emakumeak, bazterkeria arriskuan dauden pertsonak, DSBEaren titularrak edo iraupen luzeko langabeak.<br><br>**Enplegu-plan** horien bidez, sailetan dauden unean uneko edo egoeraren araberako premiak identifikatzen dira urtero, eta behar horietan oinarrituta zehazten da zenbat pertsona behar diren eta zer profili erantzun behar dieten. Enplegu-plan horietan, legegintzaldi honetan 124 pertsona kontratatu ditu udalak, eta horiei Oarsoaldeak kontratatutakoak (27) eta hirugarren sektoreko erakundeek kontratatutakoak (18 modalitate berria) gehitu behar zaizkie.<br><br>Gainera, eskualdeko langabetuak kontratatzeagatik **enpresa pribatuei ematen zaizkien diru-laguntzen** bidez kontratatutako pertsonak daude (proposatzen den gaietako bat). Azken bi urteetan 100 kontratu finantzatzeko partida bat aurreikusi da. |
| Proposamena bere horretan betetzeko konpromiso maila:<br>☐ HERRITARREK PROPOSATU DUTENA BERE HORRETAN EGINGO DA (%100)<br>☐ HERRITARREK PROPOSATU DUTENA ALDAKETA TXIKIREN BATEKIN EGINGO DA (%75A MANTENTZEN DA)<br>☐ HERRITARREK PROPOSATU DUTENAREN ANTZERAKO ZERBAIT EGINGO DA BAINA NAHIKOA ALDATUTA (%50, ERDIA, GUTXI GORABEHERA)<br>☒ HERRITARREK PROPOSATU DUTENA EZ DA EGINGO |
| Zer egitera eta zer ez egitera konprometitzen da? (erantzun ahalik eta zehatzena)<br>• Egiten dena egiten jarraituko da, planteatzen diren helburuekin bat datorrena, baina planteatzen den gairen bat administrazio publikoaren logikatik gauzatzea zaila da. Batzuetan, helburuetan ados egonda, zailtasunak edo mugak izan ditzakegu egiteko modu batzuk planteatzeko orduan. |

## SALAKETEN BULEGO IBILTARIA EZAGUTARAZTEA ETA IRISGARRIAGOA EGITEA.

| |
|---|
| GAIA, AZPIGAIA / TEMA, SUBTEMA:<br>4. Un pueblo seguro y cohesionado |
| ERRONKA / RETO:<br>4.1. Desarrollo del plan de seguridad urbana<br>Activación estable de la oficina itinerante de denuncias, incorporando a la oficina un enfoque interdisciplinar e integral |
| ☐ ORAIN ARTE EGINDAKOAREN GAINEAN EKARPENA / APORTACIÓN SOBRE LO REALIZADO HASTA LA FECHA<br>☒ AURRERA BEGIRA AURREIKUSITAKOARI HOBEKUNTZA PROPOSAMENA / PROPUESTA DE MEJORA A LO PREVISTO DE CARA AL FUTURO<br>☐ PROPOSAMEN BERRIA / NUEVA PROPUESTA |
| Zein da gure proposamena? (ahalik eta zehatzena) / ¿Cuál es nuestra propuesta? (Con la mayor concreción posible)<br>Dar a conocer y hacer más accesible la oficina itinerante de denuncias. |
| Herritarren balorazioa, kezka edo abiapuntuko ekarpena. Zerk kezkatzen gaitu gai honetan?<br>Valoración, preocupación o aportación de las participantes. ¿Cuál es nuestra preocupación sobre este tema?<br>Es necesario que este tipo de servicio sea cercano y accesible para la ciudadanía, hoy en día parece una furgoneta de atestados, y es necesario diferenciarla. Se menciona como ejemplo, que a veces la oficina está al lado de una plaza, pero dando “la espalda” a la plaza y mirando hacia un contenedor. |
| Proposamenaren garapena: Zergatik proposatzen dugu? Nola garatu daiteke? Nola iritsi daiteke herritar gehiagorengana?<br>Desarrollo de la propuesta: ¿Cuál es el motivo de la propuesta? ¿Cómo se desarrollaría? ¿Cómo llegar a más ciudadanía?<br>Esta oficina itinerante no es muy conocida entre la ciudadanía, muchas personas que han participado en el proceso no conocían este proyecto. Por lo tanto, el primer reto sería dar a conocer más el servicio, trabajar más la difusión.<br>Por otro lado, como se ha mencionado antes, parece una furgoneta de “atestados” y la ciudadanía no entiende que se puede acercar a realizar un trámite de igual forma que en la oficina. Para ello, se propone identificar adecuadamente la oficina, y completarlo:<br>- Crear una señalítica específica (logo, letras, nombre...)<br>- Poner una haima<br>- Unos vinilos/roll up<br>Por último se menciona en la reunión que es importante la actitud de las personas que estén trabajando: cercanía, voluntad de explicar qué hacen y qué funciones tiene la oficina itinerante, etc. |

| **ERRONKA:** HIRI-SEGURTASUNERAKO PLANA GARATZEA **(4.1.0.)** |
|---|
| Zein da gure proposamena?<br>SALAKETEN BULEGO IBILTARIA EZAGUTARAZTEA ETA IRISGARRIAGOA EGITEA. |
| Udalaren ikuspegia proposamen honekiko (deskribapen labur bat esaldi bat-bitan)<br>Proposamenaren beharrezkotasuna partekatzen da eta Udalaren eskumenen baitan dagoen heinean, egingarri ikusten da. Salaketa bulego ibiltaria sortzearen helburua herritarrentzat zerbitzu irisgarri, seguru eta atsegina bermatzea izan zen eta hori egun betetzen ez denaren pertzepzioa badago, helburuok erdiesteko bideak sortzea ezinbestekotzat jotzen da. |
| Proposamena bere horretan betetzeko konpromiso maila:<br>☒ HERRITARREK PROPOSATU DUTENA BERE HORRETAN EGINGO DA (%100)<br>☐ HERRITARREK PROPOSATU DUTENA ALDAKETA TXIKIREN BATEKIN EGINGO DA (%75A MANTENTZEN DA)<br>☐ HERRITARREK PROPOSATU DUTENAREN ANTZERAKO ZERBAIT EGINGO DA BAINA NAHIKOA ALDATUTA (%50, ERDIA, GUTXI GORABEHERA)<br>☐ HERRITARREK PROPOSATU DUTENA EZ DA EGINGO |
| Zer egitera eta zer ez egitera konprometitzen da? (erantzun ahalik eta zehatzena)<br>• Kanpaina komunikatibo bat burutu, herritarrei zerbitzu honen eta bere ezaugarrien berri emango diena.<br>• Bulego ibiltariaren seinalitika eta iruditegia hobetu eta irisgarriagoa egin.<br>• Bulegoan jarduten duten agente eta auzo-udaltzainekin gaia landu eta herritarrekiko harrera eta arretan formatu. |
| Epea: Noiz garatzea aurreikusten da? 2023 |

# POLIZIA HERRITARREKIN HARREMANETAN JARTZEKO MODUA HOBETZEA.

GAIA, AZPIGAIA / TEMA, SUBTEMA:

Un pueblo seguro y cohesionado

ERRONKA / RETO:

4.1.1. Desarrollo del plan de seguridad urbana

- Nuevo impulso a las policía municipal de barrio

- Contratación de educadores de calle para trabajar la prevención y fortalecer el sentido de comunidad

☐ ORAIN ARTE EGINDAKOAREN GAINEAN EKARPENA / APORTACIÓN SOBRE LO REALIZADO HASTA LA FECHA

☒ AURRERA BEGIRA AURREIKUSITAKOARI HOBEKUNTZA PROPOSAMENA / PROPUESTA DE MEJORA A LO PREVISTO DE CARA AL FUTURO

☐ PROPOSAMEN BERRIA / NUEVA PROPUESTA

Zein da gure proposamena? (ahalik eta zehatzena) / ¿Cuál es nuestra propuesta? (Con la mayor concreción posible)

Mejorar la forma en la que la policía se relaciona con la ciudadanía

Dos ejes de propuesta:

1. Incentivar para que las personas (agentes+educadores) no se muevan tanto. El reto es que las personas no roten tanto.
2. Formación: adecuada para el trato con las personas.

Herritarren balorazioa, kezka edo abiapuntuko ekarpena. Zerk kezkatzen gaitu gai honetan?

Valoración, preocupación o aportación de las participantes. ¿Cuál es nuestra preocupación sobre este tema?

Iluminación, higiene y vandalismo son factores que preocupan a la ciudadanía.

El ratio de municipales por población es pequeño, pero el ratio de educadores/as es menor todavía.

Además, hay mucha rotación por diferentes motivos, entre otros, que las personas que ocupan esos puestos tienen otras aspiraciones, otra finalidad laboral.

Proposamenaren garapena: Zergatik proposatzen dugu? Nola garatu daiteke? Nola iritsi daiteke herritar gehiagorengana?

Desarrollo de la propuesta: ¿Cuál es el motivo de la propuesta? ¿Cómo se desarrolaría? ¿Cómo llegar a más ciudadanía?

Poner en marcha la policía de barrio y educadores (Eje. Policía-Educador-Agente Antena).

1. En cuanto a la primera propuesta, no se sabe cuáles pueden ser las medidas exactas que puede adoptar el Ayuntamiento para evitar la rotación, pero es necesario que se tomen medidas.
2. En cuanto a la formación, se menciona que hay que ir mucho más allá de la formación “castrense”, necesitamos formar a la policía municipal en cómo comunicar, transmitir, llegar a mayor número de ciudadanía, etc.

| **ERRONKA:** HIRI-SEGURTASUNERAKO PLANA GARATZEA **(4.1.1.)** |
|---|
| Zein da gure proposamena?<br>POLIZIA HERRITARREKIN HARREMANETAN JARTZEKO MODUA HOBETZEA. Bi proposamen-ardatz:<br>1) Pertsonak (poliziak + hezitzaileak) hainbeste mugi ez daitezen sustatzea. Erronka da pertsonen jarraikortasuna bermatzea.<br>2) Prestakuntza: pertsonekiko tratu egokia. |
| Udalaren ikuspegia proposamen honekiko (deskribapen labur bat esaldi bat-bitan)<br>Gaiaren garrantzia partekatzen da eta udaltzaingo hurbilago eta integralago baten bidean urratsak ematen jarraitzeko konpromisoa badu Udalak. Eta proposamenen zentzua eta norabidea ulertzen diren arren, bide horiek jorratzeak bere zailtasunak ditu:<br>1) Lehen proposamenari dagokionez, hein handi batean, ez dago Udalaren esku langile hauen jarraikortasuna bermatzea. Administrazio publikoko langileek leku-aldaketak burutzeko eskubidea dute eta hori aldatu ezinezko premisa da. Gainera, udaltzainen deialdiek badute berezitasuna bat eta da, oro har, deialdi bateratuak egiten direla, beraz, udaltzainetarako aurkezten dira, jakin gabe ondoren, bakoitzak non lan egin beharko duen. Horrek, bereziki areagotzen du kolektibo honen mugikortasuna. Bestalde, plazak sortzeko eta horien titularrak modu egonkorrean izendatzeko muga legal handiak egon dira azken urte luzeetan eta horrek ere ez du lagundu, nahiz eta orain estabilizazio-prozesu zabal bat egitera goazen. Hori eginda ere, zaila izango da egonkortasuna bermatzea, joera dutelako udaltzainek (gainerako Udal-langileek bezala) euren bizilekuetatik erlatiboki hurbil dauden plazetara mugitzekoa.<br>2) Bigarren proposamenari dagokionez, proposatzen den esparru espezifiko horretan, egun eskaintzen dena baino formazio gehiago ematea konplexua da, gai asko direlako udaltzainen formazioan interesa eduki dezaketen eremuak. Edonola ere, gurean bada, gurera lanera datozen udaltzain guztiek jasotzen dute harrera-plan bat, zeinetan Udalak sustatu nahi duen udaltzaingo-ereduaren inguruko ikuspegia ematen zaien, besteak beste, unibertsitateko aditu bat ekarriz.<br><br>Proposamena jasota geratzen da eta gure egiten dugu gure eguneroko lanean ikuspegi hau txertatzea, baina, oraingoz, honen inguruko ekimen berezirik aktibatu gabe. Hala ere, auzo udaltzainen figuraren eta hauen rolaren inguruko lanketan sakontzeko konpromisoan jarraituko da; baita kale hezitzaileen eginkizun eta koordinazio integralagoan ere. |
| Proposamena bere horretan betetzeko konpromiso maila:<br>☐ HERRITARREK PROPOSATU DUTENA BERE HORRETAN EGINGO DA (%100)<br>☐ HERRITARREK PROPOSATU DUTENA ALDAKETA TXIKIREN BATEKIN EGINGO DA (%75A MANTENTZEN DA)<br>☐ HERRITARREK PROPOSATU DUTENAREN ANTZERAKO ZERBAIT EGINGO DA BAINA NAHIKOA ALDATUTA (%50, ERDIA, GUTXI GORABEHERA)<br>☒ HERRITARREK PROPOSATU DUTENA EZ DA EGINGO |

# KIROL-GUNE BAT PRESTATZEA BAZTERKERIA-EGOERAN DAUDEN KOLEKTIBO GAZTEENTZAT.

| |
|---|
| GAIA, AZPIGAIA / TEMA, SUBTEMA:<br>Pueblo Seguro y cohesionado |
| ERRONKA / RETO:<br>4.1.3. Habilitar una zona deportiva para colectivos jóvenes que están en situación de exclusión |
| ☐ ORAIN ARTE EGINDAKOAREN GAINEAN EKARPENA / APORTACIÓN SOBRE LO REALIZADO HASTA LA FECHA<br>☐ AURRERA BEGIRA AURREIKUSITAKOARI HOBEKUNTZA PROPOSAMENA / PROPUESTA DE MEJORA A LO PREVISTO DE CARA AL FUTURO<br>☐ PROPOSAMEN BERRIA / NUEVA PROPUESTA |
| Herritarren balorazioa, kezka edo abiapuntuko ekarpena. Zerk kezkatzen gaitu gai honetan?<br>Valoración, preocupación o aportación de las participantes. ¿Cuál es nuestra preocupación sobre este tema?<br>Que puedan hacer deporte en lugar de estar fumando en parques o realizando actos vandálicos |
| Zein da gure proposamena? (ahalik eta zehatzena) / ¿Cuál es nuestra propuesta? (Con la mayor concreción posible) |
| Proposamenaren garapena: Zergatik proposatzen dugu? Nola garatu daiteke? Nola iritsi daiteke herritar gehiagorengana?<br>Desarrollo de la propuesta: ¿Cuál es el motivo de la propuesta? ¿Cómo se desarrollaría? ¿Cómo llegar a más ciudadanía? |

| **ERRONKA:** HIRI-SEGURTASUNERAKO PLANA GARATZEA **(4.1.3.)** |
|---|
| Zein da gure proposamena?<br>KIROL-GUNE BAT PRESTATZEA BAZTERKERIA-EGOERAN DAUDEN KOLEKTIBO GAZTEENTZAT.<br>Parkean erretzen edo ekintza bandalikoak egiten egon beharrean kirola egin ahal izatea. |
| Udalaren ikuspegia proposamen honekiko (deskribapen labur bat esaldi bat-bitan)<br>Bideragarri izan dadin zehaztasunak falta zaizkio proposamenari. Lehenik eta behin, zehaztu beharko litzateke zer esan nahi den zaurgarriak diren gazteak aipatzen direnean, ezaugarri eta baldintza oso desberdinak dituzten gazteek osaturiko oso kolektibo zabal bati buruz ari gaitezkeelako. Esku hartzeko, gazte zaurgarri horien ezaugarriak zehaztu beharko genituzke, zehazki norengana zuzendu nahi dugun jakiteko.<br>Edonola ere, Udala jabetuta dago kirola izan daitekeen integrazio tresna garrantzitsuaz. Eta, ikuspegi hori txertatuta dago gure kirol-politikan nahiz eta garapen handiago izan dezakeen ildoa izan. Integraziorako den tresna garrantzitsuaz jabetuta:<br>• Babesten da, adibidez, Mindara elkartearen lana, dibertsitate funtzionala duten haur eta gazteek kirolaz goza dezaten eta kirolaren bidez harremanak eraiki ditzaten.<br>• Sortzen dira modu librean erabil daitezkeen kirol-eremuak; izan kirol egiteko makinekin, edo doako kirol-eremuak ahalbidetuz (Beraungo estadioa, Fanderiako tenis pistak…)<br>• Edo, errazten zaie Belabaratzen dauden herritarrei doako kiroldegiko txartela.<br>Neurri batean egiten dela aintzat hartuz, baina ildo hau gehiago garatu daitekeela onartuz, Udalak konpromisoa hartzen du ildo honi bultzada handiagoa ematekoa. |
| Proposamena bere horretan betetzeko konpromiso maila:<br>☐ HERRITARREK PROPOSATU DUTENA BERE HORRETAN EGINGO DA (%100)<br>☐ HERRITARREK PROPOSATU DUTENA ALDAKETA TXIKIREN BATEKIN EGINGO DA (%75A MANTENTZEN DA)<br>☒ HERRITARREK PROPOSATU DUTENAREN ANTZERAKO ZERBAIT EGINGO DA BAINA NAHIKOA ALDATUTA (%50, ERDIA, GUTXI GORABEHERA)<br>☐ HERRITARREK PROPOSATU DUTENA EZ DA EGINGO |
| Zer egitera eta zer ez egitera konprometitzen da? (erantzun ahalik eta zehatzena)<br>• Orain arte proposatzen den ildotik garatu dena garatzen jarraitzeko konpromisoa hartzen du udalak.<br>• Baita, norabide horretan, kolektibo desberdinen ezaugarri eta beharrak zehaztu eta horiei zuzendutako ekimen gehiago garatzeko konpromisoa ere. |
| Epea: Noiz garatzea aurreikusten da? 2023. |